EREIN Argitaletxea
Tolosa etorbidea 107
20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
Tel.: (+34) 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Krimena eta zigorra

Fiodor Dostoievski

Itzultzailea: Uharte Zubillaga, Aroa

Bilduma: Literatura Unibertsala, 195
Formatua: **16 x 24** mm
Orrialdeak: **600**
Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2026-11-05
ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-113-8
Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

23,00 €

ISBN: 978-84-1093-113-8
9 788410 931138

Krimena eta zigorra ez da soilik hilketa baten inguruan eraikitako nobela bat; giza kontzientziaren sakonenetara egindako bidaia da. Rodion Raskolnikov gazteak egindako krimen batek abiarazten du kontakizuna, baina Dostoievskiren benetako interesa ez dago gertakarian bertan, haren ondorio moral, psikologiko eta sozialetan baizik. XIX. mendeko San Petersburgoren giro ilun eta nahasian kokatua, nobelak pobrezia, desberdintasuna, boterea, kulpa eta salbazioaren aukerak aztertzen ditu. Aldi berean, garaiko Errusiaren erretratu zorrotza eskaintzen du, feudalismotik kapitalismorako trantsizioak sortutako zauriak eta gizabanakoaren bakardadea agerian utziz.

Literaturaren historiako maisulan handienetako bat da. Dostoievskik aparteko indarrez eraikitzen ditu pertsonaiak, haien ahotsak, kontraesanak eta barne-borrokak. Horregatik da *Krimena eta zigorra* irakurle bakoitzari modu desberdinean hitz egiteko gai den obra bat: nobela psikologikoa, dilema etikoen azterketa, kritika soziala edo tragedia moderno bat izan daiteke aldi berean. Bere galderak ez dira zahartu; aitzitik, gaur egun ere indar berarekin interpelatzen gaituzte, justiziaren, indarkeriaren eta giza duintasunaren inguruko eztabaidak piztuz. Horregatik jarraitzen du, argitaratu eta mende eta erdi baino gehiago igaro ondoren, ezinbesteko irakurgaia izaten.

Maisulan hau euskaraz irakurri ahal izatea kultur ondasun handia da gure hizkuntzarentzat. Dostoievskiren estilo berezia, ahotsen polifonia eta pertsonaien konplexutasuna euskarara ekartzeak aukera ematen digu euskal irakurleoi munduko literaturaren gailurretako bat gure hizkuntzan gozatzeko.

KULPA - KONTZIENTZIA - JUSTIZIA

Fiodor Dostoievski



Fiodor Mikhailovitx Dostoievski
Mosku, 1821 – San Petersburgo, 1881
Errusiar idazlea izan zen. Haurtzaroa familiagiro zurrunean igarota, San Petersburgon egin zituen ikasketak, eta han hasi zuen bere ibilbidea idazle gisa. Lehenbiziko idazlanekin arrakasta koxkor bat lortu orduko, atxilotu egin zuten jarduera iraultzaileak egotzita, eta heriotza zigorrera kondenatu. Azkeneko momentuan libratu zen exekuziotik, eta, ordainetan, hainbat urte igaro behar izan zituen gatibu-lanetan, Siberian. Anaiaren, lehenbiziko emaztearen, eta bi seme-alaben galerak nozitu zituen. Osasun arazoengatik ere sufritu zuen, epilepsia-atakeak izaten baitzituen. Jokoaren mende erori eta dena galdu zuen, behin baino gehiagotan. Zorrek eta hartzekodunek presionatuta, denboraren kontra idatzi zituen lanik gehienak, «izpirituzko lasaitasunik gabe», berak esan bezala. Hala ere, errusiar literaturaren gailurtzat hartzen diren zenbait obra goren utzi zituen idatzirik, hala nola, *Krimena eta zigorra* (1866), *Ergela* (1868) eta *Karamazov anaiak* (1880). Euskaraz irakur daitezke *Jokalaria* (1866) eta *Lurpeko ezkutuan idatziak* (1864).